

Osteguna, 2011ko otsailaren 10a

'Txillardegi' omenduko dute etzi Euskal Herrian Euskarazek deitutako manifestazioan II-III

## EUSKALGINTZAREN ERREFERENTEA DELAKO



Txillardegi, 2005eko irudi batean. ALBERTO ELOSEGI / IRUTXULO

**Ruben Trincado** Sukaldaria

### «Txikitan sukaldeko soinu artean lo hartzera ohitu nintzen»

Sukaldari donostiarra Mirador de Uliako arima da; jatetxeak lehen Michelin izarra lortu du gidaren 2011ko edizioan

Elkarrizketa **c VII**



OLAIA GIL SANCHEZ



# Borrokalaria nekaezina

Euskara, literatura eta politika. 'Txillardegi'k hiru arlo horiek aldi berean uztartu ditu bere bizitzan zehar. Euskal Herrian Euskarazek omenaldia egingo dio larunbatean, 17:00etan, Bulebarretik abiatuko den manifestazioa dela-eta.

## Aritz Sorzabal

**E**uskal Herrian Euskarazek (EHE) omenaldia egingo dio etzi *Txillardegiri*, euskalgintzaren erreferente handia delako. Euskara ez ezik, antiguatarrak ere literatura eta politika izan ditu bidelagun gaztea zenetik. Hona hemen bere ekarpena.

## ↓ Euskara

■ **Antigua.** Jose Luis Alvarez Enparantza, *Txillardegia*, Antigua auzoan jaio zen 1929ko irailaren 27an. Beste goitizen batzuk erabili izan ohi ditu: *Harrizbikieta*, *Larresoro*, *Igara* edo *Usako*, tartean. Bere kabuz hasi zen euskara ikasten 1948an, etxean jakin arren ez ziotelako erakutsi.

■ **Euskara Batua.** Euskara Batuaren eratze prozesuan eragile nagusienetakoa izan zen, burubelari kolaboratu baitzuen lan horretan. Euskal aditz batuaren taulen egilea izan zen, esaterako. Hain zuzen ere, Baionan Euskal Idazkaritza sortu zuen beste euskalari batzuekin batera. Elkarlan horretatik ortografian eta morfologian oinarritzko arau batzuk adostuko ziren geroago Euskara Baturako. Lan talde horrek aurkeztutako proposamen gehienak Euskaltzaindiak onartu zituen Arantzazuko Batzarren ondoren.

■ **Euskaltzaindia.** Bere ideologia politikoak oztopatu zion euskaltzain oso gisa izendatua izatea. Hala ere, azkenean, bere hautagaitza proposatu zuten, baina berak uko egin zion izendapenari. Euskaltzaindiaren Ahoskera Bartzordeko kidea da, 1993an bartzorde hori sortu zenez geroztik.

■ **Unibertsitatea.** 1980ko hamarkadan, linguistikan espezializatutako unibertsitari ibilbideari ekin zion. Doktorego tesia euskal azentuari buruz egin zuen. EUTG, Deustuko eta Bordeleko Unibertsitatean irakasle izan zen. 70 urte bete zituenean katedratiko emeritu izendatu zuen Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU). Bestalde, Udako Euskal Unibertsitateko kidea da sorreratik.

■ **Euskal Herrian Euskaraz.** El-

karteen sortzaileetako bat izan zen antiguatarra.


■ **IRUTXULOKO HITZA.** *Txillardegik* iritzi artikulua idazten ditu IRUTXULOKO HITZAN, Loretopetik tartean. Era berean, *Euskera*, *Euzko Gogoa*, *Egan*, *Zutik*, *Jakin*, *Eusko Lurra-Tierra Vasca*, *Herria* eta beste aldizkari askotan izan da kolaboratzaile. *Branka* aldizkariaren sortzaileetako izan zen eta *Bat* soziolinguistikako aldizkari zuzendaria izan zen hamar urtez; 1992 eta 2002a artean, hain zuzen ere.

■ **Argitalpenak.** Euskararen alor gehienak jorratu ditu, baita lan ugari argitaratu ere: *Huntaz eta hartaz* (1965), *Sustrai bila. Zerbait euskal korapilo* (1970), *Hizkuntza eta pentsakera* (1972), *Euskara Batua zertan den* (1973), *Oinarri Bila* (1977), *Euskal gramatika* (1978), *Euskal Herrikerdial herrietara* (1978), *Fonologiaren matematikuntza* (1978), *Euskal fonologia* (1980), *Euskal dialektologia* (1983), *Euskal azentuaz* (1984), *Euskal kulturaren zapalketa 1956-1981* (1984), *Elebidun gizardeen azterketa matematikoa* (1984), *Soziolinguistika matematikoa* (1994), *Euskal Herria helburu* (1994), *Lingua Navarrorum* (1996) eta *Euskararen aldeko borrokan* (2004).


## ↓ Literatura

■ **Berritzailea.** 1936ko gerra eta gero euskal literatura berri eta modernizatu zuen idazle nagusienetakoa da. Euskal eleberrir modernoaen sorreraren funtsezko idazlea izan da; bai hizkera literarioari dagokionez, baita narratologiari eta tematikari begira ere.

■ **Adibideak.** Europako mugimendu existenzialistarekin lotu zuen euskal literatura. Gorabehera etengabean murgilduta, istorian zehar bilakatu zabaldu eta zalantza, barne-korapilo eta larrimenez osaturiko pertsonaia konplexuen bidez adierazi zuen kontakizuna: lehen pertsonan mintzo dira protagonistak eta beren historiaren kontalari bihurtzen dira. Aldaketa hau hiru nobela hauetan ikus daiteke be-



Antiguako idazlea, 2005ean. ALBERTO ELDEGI / IRUTXULO



Txillardegia 18/98+ plataformaren Kaieran bere iritzia idatzi zuen lehena izan zen hirian. ANTON FERNANDEZ



reziki: Leturiaren egunkari ezku-tua (1957), Peru Leartzako (1959) eta Elsa Scheelen (1969). Beraz, esan daiteke Leturia dela euskal literaturako lehen pertsonaia gatazkatsua.

■ **Liburuak.** Aipatutako hiru nobela horiez gain, beste hauek idatzi ditu: *Haizeaz bestaldetik* (1979), *Kosmodromo* (1984), *Gertakarien lekuko* (1985), *Exkixu* (1988), *Antigua* 1900 (1991), *Putzu* (1999), *Santa Klara, gure uharte ezezaguna* (2004), *Labartzari agur* (2005) eta *Horretaz* (2007).

↓ **Politika**

■ **Preso.** Bilbon ingeniari-tza ikasten ari zen garaietan, gazte mugimendu abertzaleetan hartu zuen parte. Garai horretan kartzelaratu zuten lehen aldiz.

■ **ETA.** Eusko Alderdi Jeltzalearekin (EAJ) tirabirak izan ostean, beste ikasle batzuekin batera, Ekin taldea sortu zuen. Talde hau gerora ETA bihurtu zen, 1958an. Euskal arazoetan kontzientzia eta heziketa lortzea zuten helburu; abertzalearen klasikoaren kritikoak ziren eta frankismo itogarriaren aurrean EAJk agertzen zuten jarrera pasiboa salatuz. *Hitza Hitza: Txillardegiaren solasean* liburuan (1996), antigitarrak garai horiek ekarri zituzten gogora Joxean Agirre elkarrizketazaleari: «Ajuriagerrak bide gogorrenetik jotzea erabaki zuen, gure izenak ezagutzera emanez, eta gurekin ez kolaboratzeko eskatuz. Egoera larriagotuz joan zen. Bizkaitik ere gisa bereko berriak iristen ziren. Egoera oso txarra zen, tentsio izugarria genuen, eta Madariagak eta nik bereziki hautsi eta beste zerbaitekin, izen bat zuten erakunde bat sortu behar genuela esaten genuen. Benito del Vallek, berriz, indefinizio horretan segitzea hobe genuela erantzuten zigun. Azkenik, 1958ko bukaeran, seguruak ez ziren pertsona guztiekin hautsi eta erakunde berri bat hasieratik eraikitzen hasia erabaki genuen. Horrela sortu zen Euskadi Ta Askatasuna.»

■ **Erbesteak.** Militantzia politikoa dela-eta berriro atxilotu zuten eta, 1961ean, erbeste bidea

**Itzurun izenaren jatorriari buruz ere idatzi du antigitarrak**

➔ **IRUTXULOKO HITZAK** ostegunero argitaratzen du *Itzurrun*; irakurleek une honetan esku artean duten gehigarria, alegia. Bada, Itzurrun izenaren jatorriari buruz ere idatzi du *Txillardegi*; *Santa Klara, gure uharte ezezaguna* liburuan, hain justu.

Argitalpen horretan ematen dituen azalpen arabera, Itzurrun Donostiaren aspaldiko izena zen ustea zabaldua egon da, «villa» hitzaren ondoan ageri baita agiri zaharretan. «Villa» hitzak, baina, bi esanahi zituen garai hartan: hiria eta baserria. Hain zuzen ere, baserria omen zen Itzurrun. *Txillardegi*ren arabera, Serapio Mujikak argitu zuen izenaren jatorria. Antiguana, Loretopearen eta Aietearen artean, monastegi zegoen eta monastegi hartan animaliak eta nekazaritza tresnak gordetzeko baserria Itzurrun izena zuen. 1014ko agirietan ageri da izen hori; Antso Handiak Nafarroako Erregeak Donostiako monastegi Leirekoari eman zionean.

hartu zuen. Ipar Euskal Herrian, Parisen edota Bruselan bizi izan zen, idazketa eta engaiamendu politikoa uztartuz. 1967n ETA utzi zuen, V. Biltzarra eta gero.

■ **ESB.** 1977an, behin Hego Euskal Herria itzultita, politikagintzan murgildu zen. Euskal Sozialista Biltzarrea (ESB) alderdiaren sortzaileetako bat izan zen.

■ **HB.** Urte batzuk geroago Herri Batasuneko (HB) senadorea izan zen.

■ **Aralar eta EAE-ANV.** Aralarri babesa eman zion hasiera batean, baina alderdia utzi zuen, 2007an, Aralarrek berak Eusko Jaurlaritzak antolatutako ETAKo biktimen aldeko ekitaldi batean parte hartu zuenean eta Ezker Batuaren koalizioan joatea erabakitzerakoan. 2008ko urtarillan, EAE-ANVeko kideekin batera agertu zen hedabideen aurrean hauteskundeetarako hautagaitzerrenda erregistroan aurkeztera joan zirenean.

o sorzabal@hitza.info



Miramar jauregian egindako agerraldia. Txillardegi-erdian manifestazioaren harira omenduko dute. EHE

**Euskararen aferak lehentasuna izan behar duela eskatuko dute**

Ehundaka atxekimendu jaso ditu 'Sasi guztien gainetik, euskaldun eta burujabe!' leloa izango duen manifestazioak

**A. S.**

Euskal Herrian Euskarazek (EHE) manifestazio nazionala deitu du larunbaterako, 17:00etan, *Sasi guztien gainetik, euskaldun eta burujabe!* leloarekin. Bulebarretik abiatuko den ekimenak eta protesta antolatzeak arrazoiak bilzen dituen manifestuak ehundaka atxekimendu ezagun eta ezezagun jaso ditu.

Manifestuan euskararen afera bizitza sozial eta politikoaren erdian kokatzeko premiari erantzuteko garaia iritsi dela aldarrikatu dute, baita euskararen aldeko apustuan urrats bat haratago eman eta euskal jendarteari norabide horretan aktiboa izateko deia luzatu ere. Hain zuzen ere, euskal komunitatea hizkuntza komunitate minorizatua dela berretsi dute. «Gaztelera eta frantsesa bila-

katu dira hizkuntza hegemonikoak Euskal Herrian, nazio hizkuntza den euskara menpeko bihurtuz. Horregatik, euskarak betetzen zituen ia funtzio guztiak erdarek betetzen ditudenez, euskaldunok bigarren mailako herritarrak gara gure herrian», azaldu dute.

**Burujabetzaren alde**

Erasoak eraso, euskaldun izateaz harro, euskaldunek «garena izaten jarraitzeko nahia eta gogoa» askotan erakutsi dutela nabarmendu dute. Horri esker, ordezkarien prozesuari aurre egin eta euskaraz bizitzeko nahiari hauspoa emateko, hamaika proiektu sortu

**Euskal jendarteari aktiboa izateko deia luzatu dio Euskal Herrian Euskarazek**

«Garena izaten jarraitzeko» nahian urrats bat haratago eman behar dela diote

dituztela gogora ekarri dute. «Hala ere, asimilazio prozesuak bere horretan jarraitzen du», aipatu dute.

Manifestazioa urrats bat haratago eman behar dela aldarrikatzeko egingo dute, manifestuan bertan azaldukoaren arabera. «Euskaldun izatearen harrotasuna eguneroko jardunaren erdiguneko kokatu behar dugu ezinbestean. Eta jokabide aldaketa hau bultzatzeko, euskaraz bizitzeko hautua egiteko, norbanakoaren determinazioa ezinbestekoa da. Baina ezin dugu dimentsio kolektiboa ahaztu. Beraz, euskal komunitateak egin behar du euskaldun burujabe bizitzeari alde», azpimarratu dute.

Euskal Herria burujabe izateko beharrez ere hitz egin dute. «Sasi guztien gainetik» ibili ahal izateko, euskaraz bizitzeko hautua egiteaz gain, euskarak bere lurralde osoan lehentasunezko estatusa behar duela nabarmendu dute. «Frantziako eta Espainiako konstituzioek ez digute horretarako aukerarik ematen. Horregatik, burujabetza behar du Euskal Herriko», esplikatu dute.

Beharrezkoa da datu guztiak betetzea

Formularioa datuak sartzeko erabiltzeko, hainbat zutabe dituen taula bat.

**IRUTXULOKO hitza**

bertako egunkaria

egin zaitetz harpidedun!

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

**www.irutxulo.hitza.info**

Eraman/bidali izen-emate orria: Katalina Eleizegi 36 behe - 20009 DONOSTIA

Ahizkuntza 13ko 15/1999 Lege Organikoa. Datu Pertsonalak Babesteko, heterik, jakinarazten ditugu nure datu pertsonalak DONOSTIAKO HEDABIDEAK S.M. -ren fitxategi automatizatu batera pasatuko direla, enpresak dituen eskaintzen berri emateko. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta kontra egiteko eskubideak erabiltzeko. Hala ere, nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: DONOSTIAKO HEDABIDEAK S.M. Katalina Eleizegi 36 - 20009 Donostia, edo harpidetza@hitza.info